Eredu erraz, erabilgarri eta segurua

Kontratazio publiko elektronikoa
Contratación pública electrónica



# Presta zaitez Kontratazio Publiko Elektronikoa egiteko

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa

05

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA



Eusko Jaurlaritzak sistemarik seguruenaren aldeko apustua egin du, Kontratazio Elektronikorako Eredua garatzeari begira.

Sistema seguru batek derrigorrez eskatzen du hainbat izapide egitea. Eta izapide horiek eragina izango dute bai enpresan bertan, eta baita lizitazio prozesuetan parte hartzen duten enpresako pertsona guztiengan ere.

Presta zaitez, egin proba eta joan zaitez ohitzen. Denbora gutxi barru Administrazio Publiko guztiek izango duten bitarteko bat erabiltzeko gonbita egiten dizugu.

Prestatu ostean, Eusko Jaurlaritzak zure enpresaren jarduerarekin bat datorren produktu edo zerbitzu bat kontratatu nahi duela iragarri zain egon beharko duzu, besterik ez; hala, modu elektronikoan egin ahal izango duzu eskaintza.

## Hona hemen zure enpresak eman behar dituen pausoak, Internet bidez eskaintza egiteko moduan egon dadin:

### 01 Izenperen Egiaztagiri Elektronikoa eskatu

- Izenperen Egiaztagiri Elektronikoa eskuratu beharko duzu eskaintza prozesuan parte hartuko duten zure enpresako pertsona guztientzat.
- Instala ezazu Izenperen Egiaztagiri Elektronikoa zure ordenagailuan, eta egin ezazu sinadura proba bat.

Informazioa
Laguntza

**www.izenpe.com**
Egiaztagiri digitalak ▼
▸ Erakundearen eskaria
▸ Eskariaren inprimakia
▸ Herritarraren Egiaztagiriaren eskaria
▸ On-line aurre erregistrorako inprimakia

Tel. **902 542 542**

**Informazio guztia 01 inprimakian**

### 02 Egin itzazu administrazio zereginak Kontratisten Erregistro Ofizialean

- Begira eta egiazta ezazu zure enpresak Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana duela, eta indarrean dagoen egiaztagiria duela. (Sei hilean behin berritu behar da).
- Zure enpresak Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emateagatik daukan zenbakia eskuratu behar duzu.
- Egiazta ezazu zure enpresako ordezkarien ahalordetzeak indarrean daudela.

Informazioa
Laguntza

**www.contratacion.info**
**www. euskadi.net/kontratazioa**

**Kontratisten Erregistro Ofiziala:**
Tel. **945 01 89 32**

**Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:**
Tel. **012** (EAE)
Tel. **945 01 80 00** (EAEtik kanpo)

Posta elek.: **roc@ej-gv.es**

**Informazio guztia 02 inprimakian**

### 03 Izena eman behar duzu Kontratazio Publiko Elektronikorako Sisteman.

- Bereiz eta identifika itzazu Kontratazio Elektronikorako prozesuetan parte hartzea nahi duzun zure enpresako pertsonak.
- Kontratazio Publiko Elektronikorako Sisteman zure enpresaren izena eman behar duzu.

Informazioa
Laguntza

**www.contratacion.info**
**www. euskadi.net/kontratazioa**

**Kontratisten Erregistro Ofiziala:**
Tel. **945 01 89 32**

**Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:**
Tel. **012** (EAE)
Tel. **945 01 80 00** (EAEtik kanpo)

**Informazio guztia 03 inprimakian**

### 04 Presta ezazu zure ordenagailua

- Windows edo Windows-NT eragiera sistema eta Internet Explorer Nabigatzailea dauzkan ordenagailua eduki beharko duzu. (Beste eragiera sistema batzuentzako ere prestatzen ari dira).
- Gaitu itzazu konfiantzazko Web orriak eta elementu azaleratuak (Pop-Up).
- Begira eta egiazta ezazu zure ordenagailuan SecretS_ DLL.dll liburutegia duzula.

Informazioa
Laguntza

**www.contratacion.info**
**www. euskadi.net/kontratazioa** ▼
▸ Elektronikoki eskaintza egitea
▸ Baldintza teknikoak
▸ 10. Eskaintzak kargatzeko eta igortzeko eragiketak behar bezala egiten direla egiaztatu behar da
▸ SecretS_DLL.dll liburutegia deskargatu behar da

**Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:**
Tel. **012** (EAE)
Tel. **945 01 80 00** (EAEtik kanpo)

Posta elek.:**laguntzakpe@ej-gv.es**

**Informazio guztia 04 inprimakian**

01 02 03 04 Enpresa batek bere lehenengo Eskaintza Elektronikoa egin ahal izateko derrigorrez bete behar dituen baldintzak.

Kontratazio publiko elektronikoa
Contratación pública electrónica




# Ez zaitez azken unera arte zain egon

Presta zaitez, egin proba eta joan zaitez ohitzen Eusko Jaurlaritzak modu Elektronikoan Eskaintzak egiteko zure eskura jarri duen sistemarekin.

## 05 Formazioa zure esku

- Atera etekina Kontratazio Publiko Elektronikorako sisteman aurreikusitako formazio ekintza guztiei.
- Ikus itzazu Kontratazio Publiko Elektronikoaren osagai nabarmenenen "Macromedia Flash" aurkezpenak.

Informazioa Laguntza

- www.contratacion.info
- www. euskadi.net/kontratazioa
  - Formazio ekintzak
    - Aurrez aurreko formazioa
    - On-line formazioa
- **Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:**
  Tel. **012** (EAE)
  Tel. **945 01 80 00** (EAEtik kanpo)
- Posta elek.: **kontratazioa@ej-gv.es**
- **Informazio guztia 08 inprimakian**

## 06 Proba ezazu

- Eskaintza Elektronikoarekin ohitzen joateko, egin itzazu probazko eskaintza batzuk (probazko eskaintza horiek egiteko ezinbestekoa da Izenperen Egiaztagiri Digitala erabiltzea).

Informazioa Laguntza

- www.contratacion.info
- www. euskadi.net/kontratazioa
  - Elektronikoki eskaintza egitea
    - Aplikaziorako sarbidea

## 07 Konpon itzazu gorabeherak

- Gorabeheraren bat izanez gero, azter ezazu Web orriaren bitartez eskaintzen diren ohiko gorabeheren zerrenda.
- Zalantzaren bat izanez gero, edo gorabehera konpondu ezinean bazabiltza, deitu Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistemako Erabiltzaileen Arretarako Zentrora.

Informazioa Laguntza

- www. contratacion.info
- www.euskadi.net/contratacion
  - Gorabeherak konpontzea eta Erabiltzaileentzako Arreta
- **Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa:**
  Tel. **012** (EAE)
  Tel. **945 01 80 00** (EAEtik kanpo)
- Posta elek.: **laguntzakpe@ej-gv.es**

---

Eusko Jaurlaritzaren egoitza eta ordezkaritzak, beharrezkoak diren izapide guztiak egiteko:

- **Vitoria-Gasteiz**
  Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia
  Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza
  Donostia-San Sebastián, 1
- **Bilbao**
  Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza
  Gran Vía, 85 (Informazio orokorra-Beheko solairuan)
- **Donostia-San Sebastián**
  Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza
  Andía, 13 (Informazio orokorra-Beheko solairuan)

05 06 07 Enpresa batek Eskaintza Elektronikoarekin ohitzen joateko ezinbestean eman beharko dituen hiru pausoak.